

# Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA

2011ko apirila 29



Beasaingo Udala



Argazkia: Fotoetxe

## Igartza, berrituta

4

### KIROLA

Igartza Igeriketa Kirol  
Elkartea jauzi berri bat  
emateko prest

6

### EUSKARA

Apirilaren 13an pasako da  
aurtengo Korrika Beasaingo  
kaleetatik

8

### HIRIGINTZA

Arana eta Jose Migel  
Iturriotz kaleetako birgaitze  
lanak aurrera doaz



Niños de la catequesis con el párroco Daniel Aguirre en Astigarreta. Ojanguren Indalecio.



"Txindoki Beasaindik", 2011. Txakel

**Beasain**



"Txistulariak eta Musika Eskolako banda", 2011. Xabier Garmendia

**eta beasaindarrak**



"Abesbatza", 2011. E. Mujika.



"Aralar Usurberako bidetik", 2009. Xabier Eskisabel.

Puedes colgar tus fotos en [www.guregipuzkoa.net](http://www.guregipuzkoa.net)  
Algunos beasaindarrak ya lo han hecho.  
Éstas son algunas de las fotos que han subido. Animatu zaitez!



Juanjo con su acordeón", 2011. Luisa Zurutuza.



"Dizebiren graffiti bat", 2009. Xabier Eskisabel.



**H**amaika oroitzen datorkit, azalean garbi bezain eder Igartza Jauregiaren argazkia ikusi dudanean. Indar fabrika tokiz aldatu izanak aukera paregabea utzi digu Beasaindarroi herria berritzeko.

Gune zabal hartan zur eta lur geratu ziren adituak Igartzarekin batera, multzo monumentaleko eraikin haiek azalaleratu zirenean. Harrezkeroz hamaika urte pasa dira Udala guziaren jabe egin zenetik. Hamaika kezka eta erronka nahasirik. Zer egin eraikin horiekin?, berritu?, zertarako?.

Indusketa lanak ezinbestekoak ziren eskuartearen genuenaren neurria jakiteko. Aranzadi elkartera jo genuen horretarako. Lehendabiziko ezustea Indar fabrikaren sukalde azpian XVIII. mendeko Burdinolaren aztarnak aurkitzeak eman zigun.

Aurkikuntzaz aurkikuntza, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere behar adinako garrantzia eman zion gaiari eta berritzeko irizpide tekniko zein dirulaguntzetan ezinbesteko bidelagun izan dugu gaur arte. Kutxak ere bere gizarte izpirituari jarraiki bere berea egin du proiektua dirulaguntza dextente bideratuaz Igartzara.

Gipuzkoa osoan ez da horrelako multzorik aurkitu gaurdaino.

Udalak ere bere lehentasunen artean jarri zuen birgaitze lan hau eta

gogor eta adoretz ekin dio gauzatu arte. Gaur egun esan dezakegu beasaindarron historiaren zati bat azaleratu dela. Bidegurutzeari eta burdingintzari lotutako historia, oraina eta lehena lotuz.

Berritze lanarekin jarraituz hor dugu Arana Kalea. Etxe aurretan andamioak ikusten dira. Hiru urte badira Udalak Arana Kaleko etxebizitzak birgaitzeko egistamoa martxan jarri zuenetik. Bizilagunekin hamaika bilera egin ondoren pauso garrantzitsu batzuk eman dira. Gune honetako 11 portaletatik 7k era bateko edo besteko konpromisoak hartu dituzte etxebizitzak txukuntzeko. Krisiak ere badu kasu honetan bere eragina, lanak aurrera eramateko maila guk ere zaildu egin dira. Ea azkar baino lehen erdigune honek bere itxurari berritzea ematen dion, bertako bizikaltatean onerako.

Kirolak eta kulturak beste behin ere emango du zeresana herrian. Astero joan etorrian ume mordo dabilkigu igerilekuan igerian ikasi eta uretan gozatuaz. Eguneroko erronkari erantzun behar izaten diote igeriketa eskolakoek. Bejondeiela!

Idazteak eta irakurtzeak ere behar du bere denbora gure egunerokoan. Horretara animatzen direnek badute aukera ederra urtero irakurzaletasuna bultzatzeko antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko.

Aniztarretik Irigoiengo industriaguneraino doan bidegorria ere hasi da jendez betetzen, Ormaiztegitik datorrenarekin bat eginaz, bertaratu eta erabiltzaileen iritzia irakurri al izango dituzu.

Azkenik, Korrikaren berri ematen da. Oraindik ere bultzada ugari behar du euskarak, ez da egun bateko korrika, egunerokoa baizik. Egunerokoa kalean, ume eta gurasoen artean, gazte eta helduen harremanetan.

En portada de la revista aparece renovado el Palacio de Igartza. Estos últimos años hemos tenido la oportunidad de renovar urbanísticamente el pueblo. El traslado de la fábrica de Indar dejó un gran espacio que ha permitido dar continuidad al entramado urbano. Al mismo tiempo salieron a luz restos y edificios ruinosos del conjunto monumental de Igartza. Es a partir del año 2000 que el ayuntamiento se hace propietario de esos edificios y encomienda a la sociedad Aranzadi el estudio histórico-arqueológico de las edificaciones y su entorno. La primera sorpresa surge al descubrir casi intactos los restos de la ferrería del siglo XVII, debajo de uno de los pabellones de Indar. Se intuye que en Igartza existe todo un conjunto monumental con entidad propia.

La Diputación Foral de Gipuzkoa comprende de inmediato el valor patrimonial de este conjunto único en Gipuzkoa y nos presta su ayuda técnica y económica para rehabilitar y poner en valor todo el conjunto. También Kutxa ha creído en la importancia de la rehabilitación y está ofreciendo su ayuda económica en todo el proceso. La rehabilitación del conjunto de Igartza ha sido una prioridad del ayuntamiento y hoy podemos afirmar satisfechos que se ha recuperado parte de la historia de Beasain que antes como ahora tiene como ejes el ser cruce de caminos y saber trabajar el hierro y sus derivados.

Hablando de rehabilitación se nos explica en este número de la revista el estado de la rehabilitación de la calle Arana. Hace más de tres años que el Ayuntamiento impulsó este proyecto, ante el escepticismo de no muchos. La Oficina municipal creada al efecto ha promovido múltiples reuniones entre vecinos, ha tramitado solicitudes, y gestionado ayudas. Hoy es el día que ya se ven andamios en las fachadas. De 10 portales 7 ya se han comprometido a acometer alguna obra de rehabilitación. Espero que en un plazo no lejano estas viviendas de más de 100 años, el primer ensanche del municipio, se rehabiliten y su entorno se renueve. Que recupere la prestancia y calidad de vida que tuvo no hace mucho.

Los nadadores, escritores... tienen también cabida en esta revista. Los usuarios del recién inaugurado bidegorri que conduce a Ormaiztegi nos dan también su opinión.

Por último se nos recuerda la KORRIKA a favor del euskera. Carrera de fondo y diaria para impulsar el euskera que nos recuerda el compromiso de utilizar en nuestras relaciones sociales y familiares el euskera. Si los que sabemos el euskera no lo utilizamos ¿Quién la utilizará?.

## Zer irizten diozu Ormaiztegiara doan bidegorriari?



Jose Peña

"Ni kalean ibiltzen naiz, ez dut bidegorriarik erabiltzen. Gaur kasualitatez harrrapatu nauzu bertan. Bidegorria egon edo ez, niretzat berdin-berdin da. 81 urte ditut eta ez dut kirolik egiten. Garai batean Usurbetik edo Murumenditik egiten nuen buelta. Orain, ordean, zulo honetan ibili behar! Dagoeneko jarrita nago eta ez dit inbidiarik ere ematen. Ez dut beste erremediorik".



Antonio del Olmo

"Egunero erabiltzen dut Ormaiztegiara doan bidegorria. Lehen Segurara joaten nintzen eta orain, berriz, Ormaiztegiko buelta egin ohi dut. Egunero. Ondo dago bidegorria. Ni normalean goizetan ibiltzen naiz. Gauetz ibiltzeko, Salbatoreraino daude argiak jarrita, handik aurrera ez. Edonola ere, oinez askoz jende gehiago ibiltzen da txirinduz baino".



Jose Luis Urizar

"Un problema que tiene este bidegorri es la suciedad, en parte, por las obras del TAV. Entre tanto camión... Supongo que cuando acaben estos trabajos, estará mejor. Hombre, los ciclistas van por la carretera. Yo creo que es por la suciedad y también por la velocidad, que a 10 km/h te puedes hasta caer de la bicicleta. De todos modos, este bidegorri no es de los más concurridos. El que va a Ordizia se utiliza más".



Nekane Galarza

"Bidegorria ondo dago. Gertatzen dena da txakur-kaka asko dagoela. Ni ere etorri izan naiz nire ahizparen txakur txiki batekin, baina ez dut sekula utzi gorotzik. Gainontzean, jende asko ibiltzen da. Grazia egiten dit ikusteak igande goizetan aita gazteak umeekin bizikletan. Ni ia egunero ibiltzen naiz".

Igartza Igeriketa Kirol Elkarte

# "Teknika ondo ikasten duen azkar egiten, gure helburua"

Que los niños y jóvenes de Beasain hagan deporte. Ése es el primer objetivo de Igartza Igeriketa Kirol Elkarte. Se les enseña hacer más eficiente la brazada del crol o realizar correctamente la respiración. Es decir, la técnica. "Quien aprende bien la técnica, ya tendrá tiempo de aprender a ser más rápido". Entre chapuzón y chapuzón, se lo pasan en grande y es que como ellos mismos reconocen, "es una asociación muy familiar, configurada por padres que desean que sus peques hagan deporte y, sobre todo, disfruten con ello. Desde 1985 han ido dando saltos. Comenzaron con menos de 40 nadadores. Hoy son 135. El próximo salto: crear un pequeño equipo de rendimiento. Nos hablan de todo ello Iker Zurutuza, Gorka San Sebastián y Ani Miccielli.



**Dagoeneko zuen igeriketa elkarteak 26 urte ditu. Zer azpimarratuko zenukete ibilbide guzti horretatik?**

**Iker:** Elkarte Jaione Yurramendik sortu zuen 1985ean. Orduetik, 30-40 igerilarirekin ibili izan gara. Beasaingo igerilekuaren tamaina zela eta, 14 urtetik gorakoek Ordiziara joan behar izaten zuten igeri egitera. Igerileku berria egin zenean eman genuen jauzia. Talde asko hasi da orduetik. Gaur 135 gara.

**Gorka:** Orain bi kale erabili ditzakegu.

**Iker:** Horri esker, ordutegia zabaldu genuen. Lehen igeri eskolak bi ordu eta erdi ematen zituen egunero. Orain, berriz, hiru ordu. Zortzi urtekoe-kin hasten gara eta nazkatzen diren arte jarraitzen dute. Ondo bidean, 18-19 bat urtera arte.

**Gurasoek osatzen duzue elkarte, ezta?**

**Gorka:** Bai. Gurasoak gara eta guk ematen dugu elkarte aurrera. Gure

helburua eta filosofia da kirola egin dezatela gure seme-alabek. Lehiatzea, bigarren maila batean jartzen dugu. Hala eta guztiz, esan behar dugu bost urteko plan bat landu genuela eta hirugarren urtea daramagula hura garatuz. Bi irakasle berri hartu eta asmoa zen kalitatea igotzea, eta emaitzak ikusten ari gara.

**Plan horren baitan errendimendu taldetxo bat sortzea ere aurreikusten da...**

**Gorka :** Hori da. Gehienak gero ere izango dira partaidetza taldeetakoak, baina nahi dugu errendimenduko taldetxo bat sortu. Gure asmoa da pare bat urteren buruan talde hori egina izatea. Hiruzpalau lagun hasi dira dagoeneko nabarmentzen. Prozesu horretan guztian, oso garrantzitsuak dira entrenatzaileak.

**Iker:** Juantxo Amundarain eta Iñaki Moyua entrenatzaileek hiru urte daramatzate eta jarraipen hori garrantzitsua da. Sekulako zortea dugu, zeren ez da batere erraza maila oneko irakasleak izatea.

# ak ikasiko du gero igeri kirola egitea da"

**Gorka:** Lehen jendeari plana anbizio handikoa zela iruditzen zitzaion. 50 igerilarirekin hori nahi izatea... baina uste dut 150 izatera iritsiko garela. Batzuei nahiz eta lehiatzea ez gustatu, giroa gustuko dute eta etortzen dira. Bizkarreko arazoak dituzte zenbaitek eta haientzat, berriz, terapia moduko bat da.

## Txapelketetan ere baduzue esperientzia.

**Iker:** Urtero antolatzen dugu txapelketa bat Igartzta auzoko jaiek in bat-era. Iaz 160 domina banatu genituen. Gainera, gure elkarte oso familiarra da eta giro horri euste aldera, meriendak antolatzen ditugu eta bi urtetik behin, asteburu pasa Zuatzako irlara joaten gara.

**Gorka:** Eta han ez dago bereizketarik. 12 urtekoak eta 18koak elkarrekin ibiltzen dira. Talde lotua gara eta hori kalean ere ikusten da. Familia handi bat gara. Eta hori guztia finantzatzeko, gurasoek kuota txiki bat ordaintzen dute eta Udalak ere diru-laguntza ematen digu. Beti babestu izan gaitu.

## Harro egoteko moduan zarete. Gipuzkoa mailan, Udako Kopa eta Neguko Kopa eskuratu dituzue.

**Gorka:** Txapeldunak gara partaidetza mailan, bai. Jende kopuruari erreparatuta, jendetsuena gurea da eta kalitateari begira, maila ertainetik gora gaude. Kalitatean jauzi bat ematen ari gara. Neska-mutilek ikusten dute hori eta pozik daude. Hala ere, guk beti esaten diegu ze denbora egiten duten berdin dela. Baina, noski, hori 8, 9 edo 10 urterekin ulertzea ez da erraza.

**Iker:** Elkarre batzuetan denbora da kontutan hartzen dena. Hori ez da gure filosofia. Horrekin ez dut esan nahi gurea hobea denik. Baina niretzat, igeriketaren sekretua da ondo entrenatzea. Teknika ondo ikas-tea; ondo ikasten duenak, azkar igeri egiten ikasiko du.

**Gorka:** Guk aukera ematen diegu bi egunetan, hiritan edo bostetan entrenatzeko.

**Iker:** Urte gutxitan asko entrenatzeak, azkenean, askotan gainasetasun bat eragiten du, eta askok ez dute kirol hori gehiago praktikatuko nahi izaten.

## Beraz, asteburuetan gurasoak han-hemenka ibiltzen zarete, haurrak hartu, halako herritara eramane... bolondres lan hori ere hor dago.

**Iker:** Begira, guraso batzordea bolondresekin osatzen dugu eta ez dugu batere arazorik izaten. Jendea pozik dago. Urteko dinamika erraza da. Gorka eta ni batzarkideak gara, beti gaude hor, eta bada-kigu taldearen martxa zein den. Beti berriak baldin badaude, beti ikasi beharrean egongo lirateke. Eta esperientzia polita da. Hori bai, kirol indibiduala izatearekin, urduritasuna bikoitza da.

## Kirol gehienetan beti dituzte modako erreferenteak, futboleant, saskibaloian... Igeriketan, aldiz, ez.

**Iker:** Igeriketa ez da hain kirol mediatikoa. Egia da ez daukatela erreferenterik, eta nola hedabideetan ere ez den agertzen... Eta Beasainen bertan ere, askok ez dute jakingo igeriketa talde bat dagoela.



Ani  
Miccielli

Iker  
Zurutuza

Gorka  
San Sebastián





# Badator Korrika!!!

La Korrika recorrerá las calles de Beasain el próximo 13 de abril. Se prevé que pasará por la estación de tren, aproximadamente a las 10:42h. Volverá a entrar en nuestro municipio a las 13.31h. para dirigirse a Azpeitia desde el cruce de Salbatore.

Ya viene la Korrika. El próximo 13 de abril recorrerá las calles de Beasain. Mientras tanto, Nekane Munduate y la comisión de la Korrika de Goierri están trabajando y ultimando todos los detalles para hacerle una calurosa bienvenida a la Korrika de este año. "Hemos organizado varios actos para los días previos para que se vaya creando un ambiente festivo", dice Munduate.

"Por otro lado - sigue -, el objetivo de la Korrika es recaudar fondos y en ello estamos. Por un lado, las empresas, los comercios, etc. pueden hacer sus pequeñas aportaciones y por otro lado, también nos estamos encargando de la venta de kilómetros". En cualquier caso, como en cada edición, seguro que también este año a más de uno se le pone la piel de gallina al paso de la Korrika.



**Nekane Munduate**

Goierriko Korrika batzordeko kidea

## Apirilak 7

**"Zenbait gazte ausart"** dokumentalaren proiektzioa. AEK-k aurten gozatu du edizioan "Euskaltzaindia" omenduko du eta arrazoi hori tarteko, Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek ikasketa amaierako proiektu gisa aurkeztutako ikus-entzunezkoa da. 21:00etan, Usurbe antzokian.

## Apirilak 8

Ludotekaren eskutik, **umeentzat jolas-tailerrak** antolatuko dira. **Buruhandiak eta txistulariak** ere ibiliko dira Kale Nagusian barrera eta jarraian **txokolate-jana** egingo da. 17:00etan, Udaletxe auzian.

## Apirilak 9

**Gipuzkoako Kantu Txapelketa.** 17:30ean izango da Usurbe antzokian. Jarraian, 19:30ean, **bertso-dantza-poteoa** Kale Nagusian. Bareak elkartarekin elkarlanean, poteoak irauten duen bitartean, tabernetan euskal musika jarriko da.

**"Aurtengo Korrika apirilaren 13an pasako da Beasaindik eta aurretik, giroa berotzeko, hainbat ekintza antolatu ditugu aurreko egunetarako: "Zenbait gazte ausart" dokumentalaren proiektzioa, umeentzako jolasak edota Kantu Txapelketa"**



## Kontseiluaren neurketaren arabera, Udalaren Hizkuntza politika bide onetik doa

El Consejo de los Organismos Sociales del Euskera, Kontseilua, ha analizado en 2010 la política lingüística de 66 municipios. Según los resultados, Beasain es el sexto municipio que tiene una "muy buena" política lingüística. Si tenemos en cuenta Bizkaia, Beasain ocuparía el octavo lugar en el ranking. Asimismo, según Kontseilua, el nivel de conocimiento del euskera se sitúa en nuestro municipio en el 77%.



# “Liburu honetan zer kontatzea lortu dudan irakurleak erabakiko du”

El próximo 14 de abril, Uxue Apaolaza presentará su novela "Mea Culpa", ganadora del premio Igartza, que otorgan conjuntamente Elkar, Caf y el Ayuntamiento de Beasain. La escritora hernaniarra presentó su proyecto de novela bajo el título de "Hiltzailea" ("Asesino") y en breve, verá luz esta novela recién sacada de la última hornada.



**Sinopsiaren arabera, protagonista Madrilen bizi den Lur neska da. Bere bizitzarekin kontent ez eta, hiltzaile bihurtzen da. Zer da eleberrri honekin irakurleari erakutsi edo esan nahi diozuna?**

Hilketak bere iraganarekin zerikusia duen norbaiten argazkia egunkarietako azaletan ikusten duenean hasten dira eta izenburuak erakusten duen eran, erru sentimendua da akzioen oinarrian dagoena. Zer esan nahi nuen erantzutea arriskutsua da, batetik nik egin nahi nuenak orain garrantziarik ez duelako; eginda dagoena da balio duena, eta irakurleak erabakiko du zer kontatzea lortu duan, erruaz gain, zerbait gehiago bada-  
goen... (baietz espero dut).

**Lur ere zu bezala idazlea dugu. Beste antzekotasunik? Idazleak bere esperientziatik idazten du?**

Puf, asko, baina baita beste pertsonaiekin ere, idazleak noski, duen esperientziatik idazten du, besterik ez duenez, esperientzia horietan fikziozko asko egon badaitezke ere. Hala ere, aldi berean, pertsonaia guztiak dira guztiz fikziozkoak.

**Irakurketa gazi samarra, ezta? Ukitu komikorik gabea, ala?**

Komedia gazi asko bururatzen zaikit.

**“Umeek gezurra esaten dutenetik” ipuinez osaturiko liburu da. Oraingo hau idazteak aldaketa handia ekarri al du lehenengo hartatik?**

Aldaketa nagusia nobela idatzi izana da, eta sari baten bidez argitaratu izanak epearen muga ere jartzen dizula, aldaketa handia dena idazteko moduan, eginaz hausnartzeko denbora gutxi geratzen da.

**Oker ez banago, 30 urte dituzu. Eta dagoeneko zure izena ez zaigu ezezaguna egiten. Zer da gaurko Euskadin, euskalduna, emakumea eta idazlea izatea?**

Ez dakit, ni idazle afizionatua naiz, alegia, idazle tarte txikietan naiz, astean zehar, eta beti bakarka, ez dakit idazle profesionalaren bizitza nolakoa den Euskal Herrian eta euskaraz; esango nuke nire izena ez dela eza-  
guna nire literaturarekiko harremanak intimoa izateari uzteko neurrian.



## Maiatzean ekingo zaie berriro Irakurketa Tailerrei



**Xabier Mendigurenen “Sakoneta” liburuak izango dute hizpide eta aztergai partaideek**

Irakurzaletasuna sustatze aldera, Udalaren Kultura sailak herritarrak irakurtzen jarri nahi ditu maiatzetik aurrera. Bi saio izan ohi dira, egile eta liburu jakin baten inguruan. Lehenengo saioa partaideen artekoa izaten da. Irakurleek, behin proposatutako liburuak irakurri ostean, euren iradokizunak, ekarpenak, iritziak, e.a. jartzen dituzte mahai gainean. Bigarren saioan gauza bera egiten da baina liburuaren egilearekin berarekin. Aurten Xabier Mendigurenek aurkeztu berri duen “Sakoneta” liburuak izango da hizpide.

Parte hartu nahi duen orok Udaletxeko Euskara edo Kultura sailarekin jarri beharko du harremanetan.

# Arana eta Jose Migel Iturriotz kaleen birgaitze lanak **aurrera**

Tras ser calificada como Área de Rehabilitación Integrada por el Gobierno Vasco, ya han comenzado las obras en los inmuebles de las calles Jose Martin Arana y Jose Migel Iturriotz.

Con el fin de facilitar el proceso, el Ayuntamiento habilitó una oficina de información dirigida a los vecinos de la zona y se comprometió a financiar la Inspección Técnica de los Edificios. Asimismo, ha otorgado bonificaciones fiscales de hasta el 95% en las tasas. La operación, que revalorizará toda la zona, afecta a 144 familias y la inversión total asciende a 1.331.000 euros. Las obras de renovación de fachada ya se han iniciado en los números 2 y 3 de Arana kalea y en el 10 de Jose Migel Iturriotz kalea. Como dice la responsable de la oficina de atención, Elisabet Manterola, "de ocho comunidades, se han implicado siete por el momento". Subraya, además, la estrecha colaboración que ha habido entre la oficina y los vecinos.



## ➤ IBÓN DÍEZ

"Nosotros renovaremos la fachada. Con todo esto se revaloriza el barrio. Yo hubiera hecho algo más, como instalar un aislamiento térmico, pero bueno... Yo estoy encantado y creo que bastante ha hecho el Ayuntamiento, aunque algunos vecinos tienen la percepción de que se les vendió otra idea. Yo no comparto esa opinión. El Ayuntamiento ha financiado la Inspección Técnica de los Edificios".



## ➤ ÁNGELES PRESA

"La oficina de información nos ha venido muy bien, incluso para hacer las reuniones. Y Elisabet Manterola nos ha ayudado mucho. Lo que ocurre es que son ya casi tres años desde que empezamos con todo esto, y los trámites administrativos son largos. Es un lío. En mi caso particular, cambié el baño de la vivienda. Pero todavía no se me ha abonado nada. Y tuve que pedir un préstamo para las obras, así que estamos esperando. En cualquier caso, lo estamos haciendo todo con mucha ilusión porque va a quedar todo muy bien".



## ➤ ANA GIL

"Arana kaleko 4. atarian bizi naiz ni eta guk lau bilera egin ditugu, baina oraindik ez dakigu zer egingo dugun eta zer ez. Gehienok nahi dugu erakinaren fatxada konpontzea, baina badaude oraindik konbentzitu gabe daudenak. Uste dut urrian amaitzen dela Jaurlaritzak jarritako epea eta ea lehenbailehen adostasun batera iristen garen. Uste dut azkenean egingo dugula zerbait".

# Las personas con discapacidad o dependencia pueden solicitar ayudas para adquirir productos de apoyo que les ayuden a ser más autónomos

Ezintasunen bat duten pertsonen edo dependienteak direnek laguntzak eska ditzakete euren eguneroko bizitzan autonomia-  
goak izaten laguntzen dieten tresnak eskuratzeko. Laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen ditu baina eskaerak Udalaren Ongizate sailean egin behar dira.



Uno de los objetivos marcados por el departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa es favorecer la permanencia en su propio domicilio de personas con discapacidad o en situación de dependencia, garantizando que cuenten con los medios necesarios para ello. Con ese fin, en el marco del programa Etxean, otorga ayudas económicas para adquirir productos de apoyo que ayuden a estas personas a ser más autónomas para la realización de las distintas actividades diarias.

Es la Diputación la encargada de realizar la valoración para calificar el grado de dependencia o discapacidad del solicitante.

## Productos

Se pueden solicitar ayudas para mejorar la movilidad, por ejemplo, para la adquisición de silla de ruedas, grúa, rampa portátil...; para eliminar las barreras arquitectónicas, es decir, para financiar actuaciones en el portal, o para la instalación de plataformas o silla subescaleras...; para la eliminación de barreras en el interior de la vivienda; para accesorios de aseo, baño y ducha; para mobiliario, o para sistemas

para la comunicación como tableros, aparatos de grabación o prótesis auditivas. Algunas de estos productos se consideran recuperables porque pueden ser reutilizados por sucesivas personas, mientras que otras ayudas tienen carácter de intransferible.

Las personas interesadas en solicitar este tipo de ayudas deben ponerse en contacto con el departamento de Bienestar Social del Ayuntamiento.

## Udalak Beasain Kirol Elkartearekin hitzarmena sinatu du



La S.D. Beasain Kirol Elkar-tea se responsabiliza de impulsar la práctica del fútbol en el municipio, de la gestión y explotación de los campos de fútbol de Loinaz e Igartza, así como de la promoción de Beasain como municipio.

Beasaingo Udalak eta Beasain Kirol Elkar-teak urte amaiera arte indarrean egongo den hitzarmena sinatu berri dute, bi aldeek konpromisoak eta jarduerak arautuz. Besteak beste, elkarte arduratuko da herrian futbola sustatzeaz, Loinaz eta Igartza futbol zelaia kudeatzeaz eta ustiatzeaz, eta baita Beasaingo herriaren izen ona zabaltzeaz ere, ahal duen neurrian.

Julene Hidalgo, Gazteria eta Kirol zinegotzia, Patxi Plazaola Beasaingo alkatea eta Koldo Zaldúa, Beasain Kirol Elkarteko lehendakaria





## Patxi Plazaola

Beasaingo alkatea

“Egun historikoa da gaurkoa. Igartzako Jauregiaren eraberritzearekin muga jartzen diogu 500 urteko historiari. Hemendik aurrera, Jauregia ez da jauntxo batzuen izango, herriarena baizik”.



## Carlos Ruiz

Kutxako Ongizateko zuzendaria

“Kutxa gazteen auzolandeak antolatzen hasi zen duela 15 urte. Gazteak hiru urtez aritu ziren Igartzan lanean, Jauregia berregokitzeko aurre lanak burutuz. Ordutik gaur arte iraun du Igartzako eta Kutxaren arteko loturak. Goierrri osorako ekipamendu paregabea da”.



## Blanca Urgel

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua

“Igartzako elementu multzoa aparta da. Baina ondareak bizia izan behar du. Multzo honek oso ondo islatzen du Beasainek burdingintzarekin historian zehar izandako lotura”.



## Markel Olano

Gipuzkoako Diputatu Nagusia

“Erdi Arotik gaur arte industria tradizio bat egon da. Hori da gure arima, izaera, eta dugun etorkizuna ere adierazten du. Baina behar dugu ikuspegi bat. Herriaz haratago, behar dugu bailara, lurralde ikuspegi bat ere”.



Inauguratu da Igartzako Jauregia. Udalak Igartzako multzoa bere egin zuenetik, helburu estrategikotzat jo zuen garai batean jauntxoaren ondarea izan zena, herriaren eskuetara etortzea, herritarren gozamenarako. Behin burdinola, errota, zubia eta dolarea zaharberrituta, oraindik dena amaitu gabe egon arren, Igartzako Jauregia ere inauguratu berri da. Dotore. Tradizioaren eta modernitatearen zubi eta irudi bihurtu da. Herriaren industria-tradizioa ukazina egiten du Igartzako multzoak eta bertan daudelarik Done Jakuerako bidearen arrastoak ere. Aberatsa da gunea, batik bat, historiak hantxe utzi nahi izan dituelako aztarnak. Adituen arabera, ez dago Igartzako Jauregiaren parekorik Euskal Herrian, dituen ezaugarri bereziengatik.

**Inaugurazio ofizialaren ondorengo asteburuan, Jantxo Agirreren gidaritzapean eginiko Ate Irekietan, 1.500 lagun inguruk izan dute jauregia bisitatzeko pagotxa.**


Behin inauguratuta, zahar-berritze prozesu osoa zuzendu duen Jantxo Agirrek dioen moduan, “hemendik aurrera, kultura azpiegitura hau herriko kultur eta giza taldeen ekimenez hornitu beharko da”.

Inaugurazio ekitaldian nabaria izan zen herritarrek guneari dioten maitasuna, agintarien bidelagun izan baitziren, Igartzako ezpata dantzariak sekulako ikuskizuna eskaintzen zuten bitartean. Bertan izan ziren Beasaingo alkate Patxi Plazaolarekin batera, Markel Olano Diputatu Nagusia, Blanca Urgel, Kultura sailburua, eta Carlos Ruiz, Kutxako ongizate burua.

Bertaratu zirenek dantzarien agerraldiaz gozatu ostean, jauregia goitik behera ikusteko parada izan zuten. Izan ere, merezi du bisitak. Aipagarria da, nola ez, 250 m<sup>2</sup>-ko patioa, albo batean 100 m<sup>2</sup>-ko erakusketa gela duela. Patioa egokia da era guztietako ekitaldiak gauzatzeko, kontzertuak, antzezlanak, hitzaldiak, e.a. Hala, ber, lehenengo solairuan 90 eserlekuko areto txiki bat dago, batzar gela bat eta egoteko beste zonalde bat.

Eta inaugurazio ekitaldian ehunka beasaindar gerturatu baziren, hurrengo asteburuan, Jantxo Agirreren zuzendaritzapean antolatutako Ate Irekietan, 1.500 lagunek bisitatu zuten jauregia. Hasi, ondo hasi du bere ibilbidea.

Beasain cuenta con un nuevo auditorio de lujo. Entre la tradición y la modernidad, en una auténtica fusión de genialidad y trabajo de artesanía, el palacio Igartza abre sus puertas con vocación de ser un equipamiento socio-cultural para el pueblo de Beasain. Desde que el Ayuntamiento se adueña del conjunto monumental de Igartza, se ha recuperado la zona para dejarla en manos del pueblo. Igartza ha sido inaugurado recientemente por el diputado general de Gipuzkoa, Markel Olano y la consejera de Cultura, Blanca Urgel, junto al director del Área Social de Kutxa, Carlos Ruiz, y cómo no, el alcalde Patxi Plazaola, ejerciendo de anfitrión.



# IGARTZA

## Ondarea, herriaren eskura



## 1 OSTIRALA

11:30ean.- Antzerki amateurra: Bodas de sangre.  
19:00etan. Beasaingo Institututoko ikasleak.

## 8 OSTIRALA

18:00etan.- Buruhandien irteera txistularien laguntzaz.

## 9 LARUNBATA

17:30ean.- Haur kantarien jaialdia.  
Usurbe Antzokian.

19:00etan.- Moda desfilea.  
Antolatzailea: Bareak Dendari Elkartea.  
Loinazko San Martin plaza azpian.

## 10 IGANDEA

08:00etan.- Mendi irteera: Valderejoko Parke Naturala.  
Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkartea.

## 14 OSTEGUNA

19:00etan.- Liburu aurkezpena: XII. Igartza saria.  
Igartza Jauregian.

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Sirenatxo".  
Udal Bibliotekan.

## 15 OSTIRALA

22:15ean.- Antzerki garaia: No me hagas daño.  
Usurbe Antzokian.

## 16 LARUNBATA

19:00etan.- Bertso jaialdia: Ekaitz Goikoetxea, Iker Zubeldia,  
Sustrai Colina, Amets Arzallus.  
Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

## 17 IGANDEA

08:00etan.- Mendi irteera: Beasain- Intxusti-Arkaka- Beasain.  
Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkartea.

## ERAKUSKETAK

Martxoaren 31tik apirilaren 10era

Erakusketa: Arteleku arte eskolako ikasleak.  
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.



## Apirilak 7 OSTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: "Canino".  
Usurbe Antzokian.

## Apirilak 14 OSTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: "Poesia".  
Usurbe Antzokian.

## UDABERRIKO EMANALDI AK DOLAREAN

Apirilak 7, 8 eta 15

19:30ean. Loinatz Musika Eskolako gazteak.

Usurbe Antzokirako  
sarrerak aurretik erosteko.

Venta anticipada de entradas para  
Usurbe Antzokia.

Sarrera salmenta - Venta de entradas



CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net

## La Salle ikastetxeko Haur Kantariak

Mikel Garciaren eskutik, iaz sortu zen La Salle ikastetxeko "Haur Kantariak" abesbatza. Ordutik, ez diote abesteari utzi. Zuzendariaren hitzetan, "umeak ez daude ohituta ahotso instrumentu gisa erabiltzera eta probatzen dutenean, gustatu egiten zaie. Urte bat daramagu baina esperientzia oso positiboa izan da. Kursaaan abestu dugu, Donostiako beste ikastetxe batean ere bai... nahikoa ibili gara lehengo urtea izateko. Orain, erronka, horri guztiari eustea da. 8 eta 13 urte arteko haurrak dira eta garrantzitsua da ateratzea, motibatuak jarraitzeko". Harrobia dagoela, ez dago zalantzarik.

